

## AUTOKONTSUMOKO BARATZEETAN LAN EGIN AHAL IZATEKO ESKAERA

COVID-19ren krisialdiak eraginda, Nafarroako udalerri askotako alkateok aurkitzen ari garen arazoetako bat, bereziki landa-inguruneari dagokionez, autokontsumorako baratzeen kudeaketa eta bertan lan egitea eragozten duten neurri murriztaileak dira.

Egoera horrek, Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzak irizpideak aldatu ondoren, ulergaitasuna eta nahasmen handia eragin du. Baratzeak prestatzeko garaian gaude, eta gune horietan bizi diren pertsonak (Nafarroako eremu handi batean) behin eta berriz eskatzen diete alkateei irtenbide arrazional eta segurua, lan horiek arduraz eta segurtasun eta osasun-jarraibideak betez egin ahal izateko.

COVID-19ri aurre egiteko ezarri diren neurriak, kasu askotan, ikuspegi *urbanozentriko* batetik garatzen dira, landa-eremuen errealitateari, jarduerari eta kontsumo arduratsu eta osasungarria sustatzeari erreparatu gabe.

Horregatik, eskatzen diot Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzari autokontsumorako baratzeetan nekazaritza-jarduera baimendu eta arautu dezala, gaur egun ezartzen dituen murrizketarik gabe. Jarduera hori behar diren segurtasun-neurrien arabera garatu beharko litzateke, arrisku txikiko jarduera baita, gaur egun baimendutakoak baino gutxiago. Baimena emateak onura nabarmenak ekarriko lituzke familiaren osasunean eta ekonomian, eta, gainera, saltokietan jende gehiago pilatzea saihestuko litzateke.

Azkenik, eskaera hau Gobernuaren Ordezkaritzari, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari (NUKF) helaraztea erabaki dut.

Goizuetan, 2020ko apirilaren 23an

Sinatua: Unai Miranda Berroeta



Goizuetako Alkatea